



Honekin batera bidaltzen dut beheko gaia jorratzen duen araugintzako ebaluazio txostena, hala jasotzen baitu 6.4 artikuluan (uztailak 3ko 3/2013 Foru Arauaren bidez aldatua) Gipuzkoako lurralde historikoaren erakunde, gobernu eta administrazioari buruzko uztailaren 12ko 6/2005 Foru Arauak:

De conformidad con lo previsto en el artículo 6.4 de la Norma Foral 6/2005 de 12 de julio, sobre Organización Institucional, Gobierno y Administración del Territorio Histórico de Gipuzkoa, modificado por Norma Foral 3/2013 de 3 de julio, se adjunta informe de evaluación normativa referido a:

3/2020 Foru Araua, azaroaren 6koa, iruzur fiskala eragozteko lanabes teknologikoak erabili beharra ezartzen duena

Norma Foral 3/2020, de 6 de noviembre, por la que se establece la obligación de utilizar herramientas tecnológicas para evitar el fraude fiscal

Donostia, 2022ko urtarrilaren 10ean
San Sebastián, a 10 de enero de 2022

Digitalki sinatua / Firmado digitalmente por:



Gipuzkoako Foru Aldundia

Jokin Perona Lerchundi
Ogasun eta Finantza
Departamentuko foru diputatua
Diputado Foral del Departamento
de Hacienda y Finanzas



Araugintzako ebaluazio txostena

Informe de evaluación normativa

**3/2020 Foru Araua,
azaroaren 6koa, iruzur
fiskala eragozteko lanabes
teknologikoak erabili
beharra ezartzen duena**

**Norma Foral 3/2020, de 6 de
noviembre, por la que se
establece la obligación de
utilizar herramientas
tecnológicas para evitar el
fraude fiscal**

Sarrera

Iruzur fiskalaren mota berezietako bat da diru sarrera urriagoak adieraztea salmenta elektronikokoak ezabatuz edota gastu ugariagoak adieraztea faktura faltsuak erabiliz. Horretarako, tresna informatiko berezien erabilera ugaritu da jarduera sektore jakin batzuetan, salmentak ezkutatze eta kontabilitateko egoera orriak manipulatzeko.

Jardunbide horiei aurka egiteko, zenbait

Introducción

Uno de los tipos particulares de fraude fiscal es una declaración inferior de ingresos mediante la supresión de ventas electrónicas y/o una declaración superior de gastos mediante la utilización de facturas falsas. Para ello, en determinados sectores de actividad ha proliferado la utilización de herramientas informáticas específicas para la ocultación de ventas y la manipulación de los estados contables.

Para luchar contra esta práctica, diversos



erakunde eta instituziok (ELGA, Euskadiko Iruzur Fiskalaren kontrako Borrokarako Batzordeak...) zerga administrazioei gomendatzen diete irtenbide teknologikoak eta fakturatzeko sistemen kontrola egiteko tresnak ezartzea.

Azken urteotan, gomendio horiek gure inguruko herrialde askotan gauzatzen ari dira, bertan zerga sistemak ezarri direlako batik bat azken kontsumitzaileekin lan egiten duten saltokietako terminalak kontrolatzeko.

Gure kasuan, eta estrategia horrekin bat etorritz, balio erantsiaren gaineko zerga (BEZa) kudeatzeko sistema berria ezarri zitzaien zergadun jakin batzuei –muntanahiko handiko eragiketa bolumenak dituzten pertsona juridikoak gehienak– berehalako informazio hornidura izeneko sisteman (BIH) oinarrituta.

Foru arau honen bitartez Gipuzkoan aurrerapauso kualitatibo bat eman da, jarduera ekonomikoak egiten dituzten pertsona fisikoen eta pertsona juridikoen tributazioa kontrolatzeko sistema bat ezarriz, haien tamaina edo eragiketa

organismos e instituciones (OCDE, Comisión de Lucha contra el Fraude del País Vasco...) recomiendan a las administraciones fiscales implementar soluciones tecnológicas y herramientas de control de los sistemas de facturación.

Esas recomendaciones se están materializando en los últimos años en la implantación en muchos países de nuestro entorno de sistemas tributarios de control de los terminales punto de venta que operan fundamentalmente con las personas consumidoras finales.

En nuestro caso, y en consonancia con esa estrategia, ya se ha llevado a cabo la implantación de un nuevo sistema de gestión del impuesto sobre el valor añadido (IVA), para determinados contribuyentes, en su mayor parte personas jurídicas con volúmenes de operaciones de cierta dimensión, basado en el suministro inmediato de información (SII).

Mediante esta de norma foral se ha dado un avance cualitativo en Gipuzkoa, implementando un sistema de control de la tributación de todas las personas físicas que desarrollan actividades económicas y de las personas jurídicas, con independencia de su



bolumena edozein dela ere. Izan ere, zergadunak behartuta geratzen dira fakturazio sistemetan neurri teknologiko aurreratuak erabiltzera tresna teknologiko berriak baliatuta. Kontrol sistema horri TicketBAI sistema deitu zaio.

Sistema berri horrek emango diren ondasunak eta egingo diren zerbitzuak dokumentatzeko erregistroen osotasuna, kontserbazioa, trazabilitatea, bortxaezintasuna eta igorpena bermatuko ditu.

Helburua da iruzurraren aurka borrokatzea, bera gauzatu baino lehen aurrea hartuz. Horrela, zerga administrazioa bermatu egiten da jarduera ekonomikoak egiten dituzten pertsona fisikoen eta ondasun entregak eta zerbitzu prestazioak egiten dituzten pertsona juridikoen salmenta eragiketa guztiak modu egokian aitortzen direla.

tamaño o volumen de operaciones, mediante la obligatoriedad del uso de medidas tecnológicas avanzadas por parte de los contribuyentes a través de nuevos instrumentos tecnológicos en los sistemas de facturación, lo que viene a denominarse sistema TicketBAI.

Ese nuevo sistema garantizará la integridad, conservación, trazabilidad, inviolabilidad y remisión de los registros que documenten dichas entregas de bienes y prestaciones de servicios.

El objetivo es luchar contra el fraude fiscal mediante su prevención antes de su comisión. De esa manera la administración tributaria se asegura de la declaración correcta de todas las operaciones de venta realizadas por las personas físicas que realicen actividades económicas y de las personas jurídicas que realicen entregas de bienes y prestaciones de servicios.



Foru arau honek ezartzen dituen neurri esanguratsuenak honakoak dira:

Sistema informatikoaren baldintzak

Ezartzen dira zer baldintza bete behar dituen sistema informatikoak, ondasun entregak eta zerbitzu prestazioak erregistratzean, fakturak eta eragiketak egiaztatzeko frogagiriak jaulkitzean, eta informazio hori Gipuzkoako Foru Aldundira bidaltzean.

Baldintzen artean nabarmentzekoak dira:

1. Gipuzkoako Foru Aldundiaren Zerga Administrazioari helarazi beharko diote sistema informatiko horren erabileraren ondorioz sortutako informazioa. Informazioa berehala bidali beharko da eta faktura jaulkitzearekin batera.
2. Faktura edo tiket bakoitzak QR kode irakurle bat izan beharko du. Modu horretan, bezeroak edo eragiketaren hartzaileak faktura hori benetakoa den eta, horrez gain, Gipuzkoako Foru Aldundiari bidali zaion egiaztatu ahal izango du. Horrela, jakin ahal izango du

Las medidas más significativas que establece esta norma foral son:

Requisitos del sistema informático

Se establecen los requisitos que el sistema informático debe cumplir en el registro de las entregas de bienes y prestaciones de servicios, en la emisión de las facturas u otros documentos que justifiquen las operaciones, así como en la remisión de dicha información a la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Entre esos requisitos destacan:

1. La información generada con motivo de la utilización de este sistema informático deberá ser remitida a la Administración tributaria de la Diputación Foral de Gipuzkoa de manera inmediata y simultánea a la emisión de la factura.
2. Las facturas o tickets deberán incorporar un lector de Código QR, para que el cliente o destinatario de la operación pueda comprobar si dicha factura es real y si, además, ha sido remitida a la Diputación Foral de Gipuzkoa. De esa manera puede saber si



aipatutako zerga arloko obligazioak bete diren.

3. Dena den, erregistroan jaso eta Gipuzkoako Foru Aldundiari helaraziko zaion informazioak, errespetatu egingo ditu datuen babesari dagozkion mugak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 (EB) Erregelamenduak, 2016ko apirilaren 27koak, Datu pertsonalen tratamenduari eta datuon zirkulazio askeari dagokionez pertsona fisikoak babestu eta 95/46 (EE) Zuzentaraua indargabetzen duenak, ezarritakoak.

Behartutako kolektiboak

Derrigorrezko sistema orokor bat da, jarduera ekonomikoak egiten dituzten pertsona fisikoei eta ondasun entregak eta zerbitzu prestazioak egiten dituzten pertsona juridikoei eragingo diena.

Salbuespenez erabakiko da zergadunak – pertsona fisikoa nahiz juridikoa izan – balizko zer kasutan ez dituen bete beharko ezarri zaizkion obligazio berriak. Salbuespen horiek erabatekoak izango dira batzuetan eta obligazio hori osatzen duen elementuetako bat betetzera mugatuko

se han cumplido las obligaciones tributarias determinadas.

3. En todo caso, la información que se incluya en el registro y se remita a la Diputación Foral de Gipuzkoa, respetará los límites de protección de datos establecidos en el Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 27 de abril de 2016, relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos y por el que se deroga la Directiva 95/46/CE.

Colectivos obligados

Se trata de un sistema obligatorio general que afectará a todas las personas físicas que realicen actividades económicas y a las personas jurídicas que realicen entregas de bienes y prestaciones de servicios.

Excepcionalmente se determinarán supuestos tasados en los que el contribuyente, persona física o jurídica, quedará exento del cumplimiento de las nuevas obligaciones establecidas. Esas excepciones tendrán el carácter de exoneración total en algunos casos,



dira beste batzuetan, baina, nolanahi ere, erregelamendu bidez garatuko dira.

quedando circunscritas, en otros supuestos, al cumplimiento de alguno de los elementos que integran dicha obligación, si bien las mismas se desarrollarán reglamentariamente.

Kenkaria inbertsioagatik eta gastuagatik

Ezarri diren obligazio berriak betetzeko egin beharko diren kostuak murrizte aldera, aldi baterako zerga pizgarri bat ezartzen da hiru zergetan.

%30eko kenkaria txertatuko da zergaren kuotan, sistema berriaren ezarpenarekin lotutako eta egindako gastu eta inbertsioengatik.

Kenkariaren oinarria gehienez ere behartutako zergadunak 2019. urtean izandako negozio zifraren %1a izango da, gutxienezko 500 euroekin eta gehienezko 5.000 euroekin.

PFEZren kasuan, berezitasun bat dauka: kenkaria aplikatuko zaio bakar bakarrik jarduera ekonomikoen etekinek osatutako zerga oinarri orokorraren zatiarekin bat datorren zerga honetako kuota osoari.

Deducción por inversión y gasto

Para reducir los costes de cumplimiento a los que se deberá hacer frente con motivo de las nuevas obligaciones impuestas, se establece en los tres impuestos un incentivo fiscal de carácter temporal.

Consiste en una deducción en la cuota del impuesto del 30% de los gastos e inversiones realizados y relacionados con la implantación del sistema.

La base de la deducción tendrá un límite máximo del 1% de la cifra de negocios que el obligado tributario haya tenido en el año 2019, con un mínimo de 500 euros y máximo de 5.000 euros.

En el caso del IRPF tiene la particularidad de que la deducción se aplicará únicamente sobre la cuota íntegra de ese impuesto que se corresponda con la parte de base imponible general integrada por los rendimientos de actividades económicas.



Kuota nahikoa ez izateagatik egin ez diren kenkariak hurrengo hogeita hamar urte jarraituetan amaitzen diren zergaldietako likidazioetan aplikatu ahal izango dira.

Bateraezintasuna txikizkako merkataritzaren eraldaketa digitala laguntzeko kenkariarekin

Zenbait muga eta baldintza ezartzen dira maiatzaren 26ko 5/2020 Foru Dekretu-Arauko 15. artikuluan onartutako txikizkako merkataritzaren eraldaketa digitala laguntzeko kenkariarekin.

Horrela, kontuan izanik bi kenkarien pizgarri diren inbertsioak berberak direla zati batean, txikizkako merkataritzaren eraldaketa digitalerako kenkaria aplikatu duten zergadunentzat, berdinak diren inbertsio eta gastu horiek kendu egiten dira foru arau proiektu honetan aurreikusitako pizgarritik. Gainera, lehen kenkari horren zenbatekoa konputatuko da kenkari berri honen xede izan daitezkeen inbertsio eta gastuen gehieneko zenbatekoa zehazteko.

Las cantidades no deducidas por insuficiencia de cuota podrán aplicarse en las liquidaciones de los períodos impositivos que concluyan en los treinta años inmediatos y sucesivos.

Incompatibilidad con la deducción para la transformación digital del comercio minorista

Se establecen determinadas limitaciones y requisitos entre esta deducción y la deducción para la transformación digital del comercio minorista regulada en el artículo 15 del Decreto Foral-Norma 5/2020, de 26 de mayo.

Así, teniendo en cuenta que una parte de las inversiones que ambas deducciones incentivan son las mismas, para los contribuyentes que ya han aplicado la deducción para la transformación digital del comercio minorista se excluyen del incentivo previsto en este proyecto de norma foral las referidas inversiones y gastos iguales. Además, el importe de aquella deducción computará a los efectos determinar la cuantía máxima de inversiones y gastos que puedan ser objeto de esta nueva deducción.



Zehapen araubidea

Zehapen araubide bat ezartzen da, non:

- Oro har, aurreko ekitaldiko negozio zifraren %20ko diruzko isun proportzional baten bidez zehatuko da (20.000 euroko gutxienekoarekin) ez betetzea sistema informatiko edo software jakin bat erabiltzeko obligazioa. Eta subjektu arau hauslea arrazoi berdinagatik zehatua izan bada aurreko lau urteetan, zehapena negozio zifraren %30ekoa izango da (30.000 euroko gutxienekoarekin). Dena den, ondasun entrega edo zerbitzu prestazio bati edo batzuei lotuta badago arau haustea, 2.000 euroko diruzko isun finko batekin zehatuko da araua urratu duen eragiketa bakoitza.
- Oro har, aurreko ekitaldiko negozio zifraren %20ko diruzko isun proportzional baten bidez zehatuko da (40.000 euroko gutxienekoa) software, artxibo edo fitxategi informatikoak

Régimen sancionador

Se establece un régimen sancionador de manera que:

- El incumplimiento de la obligación de utilizar un sistema informático o software determinado será sancionado, con carácter general, con una multa pecuniaria del 20% de su cifra de negocios (con un mínimo de 20.000 euros). Y si el sujeto infractor ya hubiera sido sancionado por el mismo motivo dentro de los cuatro años anteriores, la sanción consistirá en una multa pecuniaria del 30% de su cifra de negocios (mínimo de 30.000 euros). No obstante, cuando el incumplimiento sea con respecto a una o varias entregas de bienes o prestaciones de servicios, la sanción consistirá en multa pecuniaria fija de 2.000 euros por cada operación con respecto a la cual se haya producido el incumplimiento.
- La destrucción, borrado o manipulación del software, archivos, o ficheros informáticos obligatorios será sancionado, con carácter general, con una multa pecuniaria del 20% de su cifra



suntsitzea, ezabatzea edo manipulatzeari, dela eskuz, dela prozesu informatiko baten bidez. Eta subjektu arau haulek arrazoi berdinagatik zehatua izan bada aurreko lau urteetan, zehapena negozio zifraren %30ekoa izango da (60.000 euroko gutxienekoa).

- Egiaztatzen bada sistema informatikoa edo softwarea garatu duen pertsonak edo entitateak edo zergaduna ez den beste edozeinek parte hartu duela suntsipenean, ezabapenean edo manipulazioan, subjektu arau haulek hartuko dira parte hartu duten pertsona edo entitate horiek ere, eta haiek guztiak zehatuko dira 40.000 euroko diruzko isun finko batekin. Eta subjektu arau haulek hori arrazoi berdinagatik zehatua izan bada aurreko lau urteetan, zehapena 60.000 euroko diruzko isun finko bat izango da.

Zehapen araubide hau ez da aplikagarria izango zergadunak sistema borondatez erabiltzea erabakitzen duen denboran zehar, araudian ezarritakoaren arabera.

de negocios (con un mínimo de 40.000 euros). Y si el sujeto infractor ya hubiera sido sancionado por el mismo motivo dentro de los cuatro años anteriores, la sanción consistirá en un multa pecuniaria del 30% de su cifra de negocios (mínimo de 60.000 euros).

- Cuando se compruebe que en la destrucción, borrado o manipulación ha intervenido la persona o entidad que ha desarrollado el sistema informático o software o cualquier otra distinta del contribuyente, se considerará asimismo a las citadas personas o entidades intervinientes como sujetos infractores. Y todas ellas serán sancionadas con multa pecuniaria fija de 40.000 euros. Y si ese sujeto infractor ya hubiera sido sancionado por el mismo motivo dentro de los cuatro años anteriores, la sanción consistirá en un multa pecuniaria fija de 60.000 euros.

Este régimen sancionador no será de aplicación durante el periodo en el que la persona contribuyente se acoja al sistema de manera voluntaria, con arreglo a lo establecido en la normativa.



Indarrean sartzea

- Sistema informatikoaren erabileraren derrigortasunak 2022tik aurrera izango ditu ondorioak. Baina mailaka ezarriko da, Gipuzkoako Foru Aldundiak laguntza eta asistentzia teknikoa eskaini ahal izan dezan, zergadunak ahalik eta erosotasun eta erraztasun handienaz egokitu ahal izan daitezen obligazio berri horretara.
- Sistemaren nahitaezko ezarpena iritsi aurretik hura erabiltzea errazte aldera, epe bat ezartzen da zergadunak aukera izan dezan sistema bere borondatez erabiltzeko. Epe hori 2021eko urtarrilaren 1ean hasiko da, eta zergadun bakoitzaren nahitaezko ezarpen data iristen denean amaituko da.
- Sistema informatikoaren ezarpenarekin lotutako inbertsio eta gastuen %30eko kuotako kenkaria aplikatu ahal izango da 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietan eta 2023ko abenduaren 31ra arte.

Entrada en vigor

- La obligación de uso del sistema informático tiene efectos a partir del 2022. De todas formas, su implantación efectiva se realizará de forma progresiva, a fin de ofrecer apoyo y asistencia técnica por parte de la Diputación Foral de Gipuzkoa para que los contribuyentes se adapten a esta nueva obligación de la forma más cómoda y sencilla posible.
- Para facilitar la utilización del sistema de manera previa a su implantación obligatoria se establece un periodo comprendido entre el 1 de enero de 2021 y la fecha de implantación obligatoria para cada contribuyente, durante el cual el contribuyente podrá voluntariamente hacer uso de dicho sistema.
- La aplicación de la deducción en cuota por las inversiones y gastos realizados relacionados con la implantación del sistema informático se podrá realizar en los periodos impositivos que se inicien desde el 1 de enero de 2020 y hasta el 31 de diciembre de 2023.



Aplikazioan izan diren arazoak

TicketBAI betebeharraren ezarpen data hurbil dagoenez, betebeharrak horretara ahalik eta modu eroso eta errazenean egokitzen laguntzeko, egokitzat jotzen da zergadunek sistemari beren borondatez atxikitzeke duten epea 6 hilabetez luzatzea, derrigorrez bete beharrekoa izan aurretik eta zehapen araubidearen mende egon gabe haren funtzionamendua ezagutzen jarraitu ahal izan dezaten.

Gainera, kontuan hartu behar da eten digitala nabarmen murriztu bada ere – halakotzat hartzen dira bai teknologia berrietarako sarbidean dagoen aldeari dagokiona eta bai teknologia horiek erabiltzeko aukera duten biztanleek teknologia horiek ulertzeko eta erabiltzeko dituzten trebetasunari dagokiona–, salbuespen gisa, oraindik ere zailtasunak ikus daitezke biztanleriaren sektore jakin batzuetan. Horixe da, adibidez, adinaren araberrako eten digitalaren kasua. Bereziki, informazioaren gizarteak aurrerapen handia izan duen arren, gaur egun erretiroa

Problemas de aplicación

Cercana la fecha de la implantación efectiva de la obligación TicketBAI, a fin de seguir coadyuvando en la adaptación a la misma de la forma más cómoda y sencilla posible, se considera oportuno ampliar 6 meses el plazo durante el cual los contribuyentes puedan acogerse voluntariamente al sistema, de forma que puedan seguir conociendo su funcionamiento antes de que les resulte de obligado cumplimiento y sin estar sometidos a su régimen sancionador.

Además, ha de tenerse en cuenta que, no obstante, la brecha digital se ha ido reduciendo considerablemente – entendiéndose por tal tanto la que hace referencia a la diferencia en el acceso a las nuevas tecnologías, como la que está relacionada con las habilidades de comprensión y uso de estas tecnologías por parte de la población que tiene acceso a ellas–, excepcionalmente todavía se pueden apreciar dificultades en determinados sectores de la población. Tal es el caso, por ejemplo, de la brecha digital por razón de la edad. En particular, a pesar del gran avance



hartzeko adinetik hurbil dauden pertsona askok zailtasunak izaten jarraitzen dute aparatu edo ekipo teknologikoak erabiltzeko orduan, edo, zuzenean, teknologia horiek erabiltzea saihesten dute.

Salbuespenezko egoera horrek justifikatzen du TicketBAI obligazioa betetzetik salbuetsita gelditzea erretiroa hartzeko adinetik hurbil dauden pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergadunak, betiere baldintza jakin batzuk betetzen badituzte.

Sortutako ondorioak

Eragindako ondorioak nahi zirenak dira; izan ere, araua hainbat kanalen bidez argitaratzeak TicketBAI sistemarekiko atxikipen-bolumen handia eragin du borondatezko aldi honetan.

Lortutako helburuak

Helburuak behar bezala lortu direla uste da, 2021eko abenduaren 31rako 654 Software Garatzaile inskribatu direlarik TicketBAI Software Erregistroan. Bestalde,

de la sociedad de la información, actualmente muchas personas de edad cercana a la jubilación siguen teniendo dificultades a la hora de manejar aparatos o equipos tecnológicos, o incluso directamente evitan el uso de estas tecnologías.

Esta circunstancia excepcional justifica que queden exonerados del cumplimiento de la obligación TicketBAI las y los contribuyentes del impuesto sobre la renta de las personas físicas que tengan una edad cercana a la de su jubilación, siempre que cumplan determinadas condiciones.

Efectos producidos

Los efectos producidos son los deseados ya que la publicidad de la Norma a través de diferentes canales ha propiciado un gran volumen de adhesiones al sistema TicketBAI en este periodo voluntario.

Objetivos alcanzados

Se considera que se han alcanzado los objetivos adecuadamente, habiéndose inscrito a 31 de diciembre de 2021, 654 Desarrolladores de Software en el Registro



TicketBAI sistema berria borondatez sartzen diren zergadunen kopurua progresiboki hazten ari da, baita jasotako fakturen bolumena ere.

Proposatutako helburuen eta lortutako helburuen arteko lotura

Proposatutako helburuen eta lortutako helburuen arteko balantzea egokia da, Foru Araua nahitaez indarrean jartzea 2022ko uztailaren 1era arte ez baita egingo, eta oraingo txertaketa borondatezkoa baita.

Arauaren benetako betetzea

Eremu hori, oraingoz, ezin dugu baloratu, arauaren betetzea borondatezkoa delako.

Araugintza garatzeko beharrak

Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzko uztailaren 12ko

de Software TicketBAI. Por otra parte, el volumen de contribuyentes que se incorporan voluntariamente al nuevo sistema TicketBAI crece progresivamente, así como el volumen de facturas recibidas.

Correspondencia entre objetivos propuestos y objetivos alcanzados

El balance entre objetivos propuestos y objetivos alcanzados es el adecuado, a tenor de que la entrada en vigor de forma obligatoria de la Norma Foral no se va a efectuar hasta el 1 de julio de 2022 y la incorporación actual es voluntaria.

Cumplimiento efectivo de la norma

Sería este un campo que por el momento no podemos valorar por la voluntariedad en el acogimiento a la Norma en cuestión.

Necesidades de desarrollo normativo

Entre los aspectos sometidos a evaluación normativa, previsto en el apartado 4 del artículo 6 de la Norma Foral 6/2005, de 12



6/2005 Foru Arauak 6. artikuluan 4. apartatuan aipatzen duen ebaluazio normatiboa jaso behar duten alderdien artean araudia garatzeko beharra ageri da. Eskuarlean dugun arauaren kasuan, xedapen hauek hartu behar dira kontuan:

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauaren 122 bis artikulua, zeina goian aipatutako 3/2020 Foru Arauaren 1. artikuluko lehen ordinalaren bigarren apartatuaren bitartez sartu baita, ezartzen du TicketBAI obligazioa betetzeko beharkizunak, mugak eta baldintzak erregelamendu bidez garatuko direla.

Ildo beretik, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 3/2014 Foru Arauaren 112 bis artikulua, aipatutako 3/2020 Foru Arauaren 3. artikuluko lehen ordinalaren lehen apartatuaren bidez sartu denak, orobat dio TicketBAI betebeharra betetzeko beharkizunak, mugak eta baldintzak erregelamendu bidez garatu beharko direla.

de julio, sobre Organización Institucional, Gobierno y Administración del Territorio Histórico de Gipuzkoa, se encuentra el de la necesidad de desarrollo normativo. En el caso de la norma que nos ocupa hay que tener en cuenta las siguientes disposiciones:

El artículo 122bis de la Norma Foral 2/2014, de 17 de enero, del Impuesto sobre Sociedades del Territorio Histórico de Gipuzkoa introducido por el apartado dos del ordinal primero del artículo 1 de la Norma Foral 3/2020 de referencia, remite a desarrollo reglamentario los requisitos, límites y condiciones del cumplimiento de la obligación TicketBAI.

En el mismo sentido, el artículo 112 bis de la Norma Foral 3/2014, de 17 de enero, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas del Territorio Histórico de Gipuzkoa, introducido por el apartado uno del ordinal primero del artículo 3 de la referida Norma Foral 3/2020, remite a desarrollo reglamentario los requisitos, límites y condiciones del cumplimiento de la obligación TicketBAI.

Gainera, aipatutako 3/2020 Foru Arauaren lehenengo xedapen iragankorrak hainbat alderdi arautzen ditu TicketBAI betebeharra ezartzeko egutegiarekin lotuta, eta ezartzen du obligazio hori erregelamendu bidez ezartzen den egutegiari jarraituz exijituko dela, jarduera sektoreen arabera.

Era berean, aipatutako 2/2014 eta 3/2014 Foru Arauen azken xedapenetako bigarrean, esaten da Foru Aldundiak eta Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak behar diren xedapen guztiak eman ditzaketela foru arau horiek garatu eta exekutatzeko.

Aurrekoari jarraituz, hona hemen 3/2020 Foru Araua garatu duten xedapenak:

32/2020 Foru Dekretua, abenduaren 22koa, TicketBAI betebeharra garatzen duen Erregelamendua onesten duena (GAO 2020/12/23).

12/2021 Foru Dekretua, urriaren 5koa, Zergen Foru Arau Orokorra garatzeko erregelamendu jakin batzuk aldatzen dituen (GAO 2021/10/08).

Además, la disposición transitoria primera de la referida Norma Foral 3/2020 regula aspectos relacionados con el calendario de implantación de la obligación TicketBAI, estableciendo que será exigible con arreglo al calendario de implantación que se establezca reglamentariamente, en función de los sectores de actividad.

Asimismo, las disposiciones finales segundas de las citadas Normas Forales 2/2014 y 3/2014 habilitan a la Diputación Foral y a la diputada o al diputado foral del Departamento de Hacienda y Finanzas para dictar cuantas disposiciones sean necesarias para el desarrollo y ejecución de dichas Normas Forales.

De conformidad con lo anterior, la Norma Foral 3/2020 ha sido, desarrollada por:

Decreto Foral 32/2020, de 22 de diciembre, por el que se aprueba el Reglamento por el que se desarrolla la obligación TicketBAI (BOG 23/12/2020).

Decreto Foral 12/2021, de 5 de octubre, por el que se modifican determinados reglamentos de desarrollo de la Norma Foral General Tributaria (BOG 08/10/2021).



Horrez gain, 32/2020 Foru Dekretuaren xedapen iragankor bakarrak TicketBAI betebeharraren ezarpen egutegia aldatzeko ahalmena ematen dio Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuari.

Gainera, TicketBAI betebeharra garatzen duen Erregelamenduak, 32/2020 Foru Dekretuaren bidez onetsiak, 6., 8., 11., 12. eta 13. artikuluetan esaten du Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak honako hauek ere ezarri ahal izango dituela, hurrenez hurren: TicketBAI betebeharra betetzetik salbuesteko beste kasu batzuk; TicketBAI softwareek bete behar dituzten zehaztapen tekniko eta funtzionalak; TicketBAI fitxategien egitura, edukia, formatua, diseinua eta ezaugarriak; TicketBAI fitxategiak bidaltzeko baldintzak eta zehaztapen tekniko eta funtzionalak; eta sinadura politikaren zehaztapenak eta baldintzak.

Aurrekoari jarraituz, xedapen hauek onartu dira:

521/2020 Foru Agindua, abenduaren 23koa, TicketBAI softwarearen zehaztapen tekniko eta funtzionalak eta TicketBAI

Asimismo, la disposición transitoria única del Decreto Foral 32/2020 habilita al diputado a la diputada foral del Departamento de Hacienda y Finanzas para modificar el calendario de implantación de la obligación TicketBAI.

Además, el artículo 6, 8, 11 y 12, y 13 del Reglamento por el que se desarrolla la obligación TicketBAI aprobado por el Decreto Foral 32/2020 habilita al diputado o a la diputada foral del Departamento de Hacienda y Finanzas a establecer, respectivamente: otros supuestos de exoneración del cumplimiento de la obligación TicketBAI; las especificaciones técnicas y funcionales que deben cumplir los softwares TicketBAI; la estructura, contenido, formato, diseño y características de los ficheros TicketBAI; las especificaciones técnicas y funcionales y los requisitos del envío de los ficheros TicketBAI; y las especificaciones de política de firma y requisitos.

De conformidad con lo anterior, se han dictado las siguientes disposiciones:

Orden Foral 521/2020, de 23 de diciembre, por la que se regulan las especificaciones técnicas y funcionales del software



Softwarearen Erregistroan alta emateko aitorpena arautzen dituen (GAO 2020/12/24).

523/2020 Foru Agindua, abenduaren 23koa, TicketBAI obligazioa betetzearen ondorioz sortutako TicketBAI fitxategiak bidaltzeko gizarte lankidetzaren baldintzak onartzen dituen (GAO 2020/12/24).

53/2021 Foru Agindua, otsailaren 8koa, zeinaren bidez aldatzen baita TicketBAI softwarearen zehaztaperen tekniko eta funtzionalak eta TicketBAI Softwarearen Erregistroan alta emateko aitorpena arautzen dituen abenduaren 23ko 523/2020 Foru Agindua (GAO 2021/02/23).

608/2021 Foru Agindua, azaroaren 9koa, TicketBAI betebeharraren ezarpen egutegia aldatzen duena eta erretiroa hartzeko adinetik hurbil dauden pertsona fisiko jakin batzuk hura betetzetik salbuesten dituen (GAO 2021/11/11).

15/2021 Foru Dekretua, abenduaren 28koa, 4. artikulua abenduaren 22ko 32/2020 Foru Dekretua aldatzen du, TicketBAI betebeharra garatzen duen

TicketBAI y la declaración de alta en el Registro de Software TicketBAI (BOG 24/12/2020)

Orden Foral 523/2020, de 23 de diciembre, por la que se aprueban los términos de la colaboración social en el envío de los ficheros TicketBAI generados con motivo del cumplimiento de la obligación TicketBAI (BOG 24/12/2020).

Orden Foral 53/2021, de 8 de febrero por la que se modifica la Orden Foral 523/2020, de 23 de diciembre, por la que se regulan las especificaciones técnicas y funcionales del software TicketBAI y la declaración de alta en el Registro de Software TicketBAI (BOG 23/12/2021).

Orden Foral 608/2021, de 9 de noviembre, por la que se modifica el calendario de implantación de la obligación TicketBAI y se exime de su cumplimiento a determinadas personas físicas en edad cercana a la de su jubilación (BOG 11/11/2021).

Decreto Foral 15/2021, de 28 de diciembre, El artículo 4 modifica el Decreto Foral 32/2020, de 22 de diciembre, por el que se aprueba el Reglamento por el que se



Erregelamendua onestekoa. Aldaketa horren helburua da zergadunei aukeraematea bete behar hori borondatez betetzearen aldeko hautua errebokatzeko, ezarpen egutegiaren arabera obligazio hori derrigorrezkoa izan baino lehen (GAO 2021/12/30)

Arauaren aplikazioagatik judizializatutako kasuak

Orain arte ez da auzibiderik izan.

desarrolla la obligación TicketBAI para permitir la revocabilidad de la opción por el cumplimiento voluntario de dicha obligación antes de que les resulte de obligado cumplimiento en virtud del calendario de implantación (BOG 30/12/2021)

Casos de judicialización por aplicación de la norma

No se ha producido ningún caso de judicialización hasta el momento.